

# B

BARREN

TOKIKOM



**ari, ari...  
euskaraz!**

17.<sup>æk</sup> korrika

## Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza



**Ate irekiak:** apirilaren **16**an,  
goizeko **11:00**etan

Etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaituz [www.imh.es](http://www.imh.es) orrian  
IMH, Azkue auzoa – 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**

Eibar

Ate irekien eguna **Apirilak 13**

**ARTE BATXILERGOA**

**Elkartrukeak**

**Portaleako Erakusketa**

**Apirilak 15-30**



Ordua 18:00

**A eta D ereduetan**

**Inglaterra - Alemania**



## Badator 17. Korrika... eta ni, beti bezela, prestatu be

Aurtenguak ere, sasoi eskasian harrapatu nau. Hau da markia, hau!

Egixa esan, beti antzera gertatu izan jata azken ekitaldixetan: etxezuletan eukitzen gaitun negua amaittu berri, konturatu orduko etortzen da Korrika, eta orduan izaten dira komerixak! Jakiñekua, ezin pasatzen laga antxintxika egin gabe.

Asko maitte dodan kirola da atletismua, saltaka egittia, bai ikusteko (gora Mugerza kros bikaiñal), bai praktikatzeko, izardi pixka bat etaratzeko: karreraren batzuk ere egin izan dittut han eta hemen: emaitza apal samarrekin, egixa da, baiña munduko intentzio haundixenarekin. Hori ez didazue ukatuko! Behobia-Donostian ere, zenbat aldiz amaittuko ete naban bihotzerriarekin, dana eman eta gero! Lagunak sagardotegira txuleta-fuentekadak berdintzera, eta ni txuleteri begira, ahora ezer sartu ezinda!

Korrikan, kirola eta euskeria uztartzen dira, eta horregatik ez diot uko egiñ izan orain artian, nere seme-alabetatik aparte maittien dittuten gauzak diralako. Esan bezela, aurrekuetan sasoi eskasian harrapatzen ninddun Korrikak, baiña hala ere ez naban eukitzen alperkerixarik Altzolan hasi eta Deban amaitzeko, jakinda ere hurrengo egunetan agujetengatik errenka ibili beste erremedixorik ez nabala eukiko.

Aurtengo buztarria berezixa da: kirola eta euskeria bakarrik ez, aurtun hirugarren idi bat (irakurtzen banaue, akabatuko naue) dago uztarrixan lotzeko, Euskaltzaindia, edizio honetan AEK-k omentzen dabana. Egun hõnetan, tokau jata han eta hemen egotia, hori dala

ta: Elgoibarko AEK-ko lagunak eskatuta, prentsaurrekuan; juan dan astian nere eskolako, Herri Eskolako, 150 ikasleren aurrera agertu, eta Euskaltzaindiaren gaiñian egitten zittuen galdera mordoxka bateri erantzun niuen: primeran pasatu naban. Gaur, berriz, idazlantxo lotsagarri hau. Beti zeozer. Ez gera aspertuko, ez. Ez eta komeni ere. Zuk ere aspertu nahi ez badozu, zatoz Korrikara, giro politta egongo da ta.



Jesus Mari Makazaga

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Zuk ere aspertu nahi ez badozu, zatoz Korrikara,  
giro politta egongo da ta”**



ESKERTZA

**IÑAKI INTXAUSTI MUGURUZA**

*Ez agurrik, ez adiorik  
gero arte baizik.*

*2011ko apirilaren 6an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



### “Sauna tradizional bat ekarriko nuke Finlandiatik Euskal Herrira”

Erasmuseko ikasleen artean ohikoak diren parrandez aparte –dezente bota dituela aitortu du–, gauza berri mordo bat egin eta probatzeko aukera izan du Oier Etxaniz (Elgoibar, 1988) ingeniartzatza informatiko ikasle elgoibartarrak Oulun, Finlandia iparraldeko hiririk garrantzitsuenean.

ASIER ORBEA



Oier Etxaniz, Ouluko ikur esanguratsua den poliziaren irudiaren alboan.

**Erasmus programarekin zaude Finlandian. Zergatik Finlandia?**

Argi nuen bakarra zen ez nuela toki tipiko batera joan nahi. Hortaz, toki arraroak jarri nituen nire Erasmuseko zerrendan. Nire bigarren aukera zen arren -Eskozia zen au-

rrenekoa- Finlandiara etortzea tokatu zitzaidan. Joan den urteko irailean ailegatu nintzen, eta maiatzaren bukaera aldera bueltatuko naiz etxera, seguruenik.

**Oulu izeneko hirian zaude. Deskribatu egiguztu nolakoa den?**

Finlandia iparraldeko hiririk garrantzitsuen da Oulu. 150.000 biztanle inguru dauzka, eta oso arraroa da bi etxebizitza bata bestearen ondoan ikustea. Oso sakabanatuta daude. Hirigunekoak kenduta, gainerako etxeak zuhaitz eta baso artean galduta daude. Bestalde, Finlandia osoan moduan, ugariak dira lakuak. Etxe ondoan bi laku dauzkagu.

**Inguruak eta Finlandia, oro har, ezagutzeko aukerarik izan duzu? Zerk deitu dizu atentzioa?**

Finlandiako ia txoko guztietan izan naiz, eta baita inguruko herrialdeetan ere. Atentzioa deitu didana, baina, Finlandiatik Suediara joateko neguan erabiltzen duten bidea izan da. Izotzutako itsaso gainean marka batzuk egin, eta horixe da herrialde batetik bestera autoan pasatzeko erabiltzen duten autopista. Izugarria iruditu zait.

**Zer erakutsiko zenioke bisitan joan zaizun lagun bati?**

Oulu bertatik Nallikari hondartza, orain izoztuta badago ere. Hemendik gertu hainbat uharte eta gunee polit ere badaude. Finlandiatik, berriz, Oulutik gertu, Laponiarako sarreran dauden Kemi eta Rovaniemi dira erakusteko modukoak; izotzez eginiko gaztelua dago lehenengoan, eta Santa Klausen bizilekua da bigarregoa.



Laponiara eginiko bost eguneko txangoko bi argazki.

### Nokakoa da hango jendea?

Hemen bertako ohitura batzuetan parte hartu eta finlandiar dexente ezagutzeko zortea eduki dut. Hasieran, salbuespenak salbuespen, nahiko hotzak dira, eta kosta egiten da eurekin harremanak edukitzea, baina azkenerako nahiko jende irekia eta jatorra da.

### Zer nolako ohiturak dituzte?

Sauna. Sauna beste konturik ez dago hemen! Hemen diote ez zarea finlandiar baten laguna berarekin sauna bat konpartitu arte. Berdin dio mutilak ala neskak izan. Estatistikek diotenez, finlandiar bakoitzeko bi sauna daude, eta arraroak dira oso saunarik gabeko etxeak. Inguruak baldintzatuta, izotzarekin erlazioatutako hainbat ohitura: izoztutako lakuetan bainatzea eta arrantza egitea ere badituzte. Ur izoztuetan bainatzearena probatu dut, eta oso lasaigarria dela esan behar dut. Artikora joan ginenean, esaterako, zero azpitik 3 gradutan zegoen ura. Turbina moduko bat erabiltzen dute ura mugimenduan mantendu eta izoztu ez dadin.

### Ezagutu dituzu 24 orduko eguzki egunak?

24 orduko eguzki egunik ez dut ezagutu oraindik. Bai, ordea, eguzkirik gabeko egunak. Poliki-poliki gertatzen da aldaketa, eta konturatu orduko ez du egunak argitzen, eta argirik badago ez da eguzkia apenas ikusten. Hasieran arraroa egiten da, baina segituan ohitzen da bat. Urte sasoi honetan 5:00etan argitzen du eta 21:00etan ilundu. 24 orduko eguzki egunetara hurbiltzen ari garen seinale.

“Erasmusen juerga” hitzak Google-en sartu eta zure bloga: “Elgoibartar bat Oulun” erakusten du bigarren postuan. Mezu subliminala, akaso?

Egia borobila.

### Zer kontatzen duzu bada zure blogean?

Aurreko galderaren erantzuna emango dizut honetan. Azken hilabeteetako nire mozkorak eta esperientziak kontatzen ditut blogean (<http://elgoibartarbatoulun.blogspot.com/>).

### Parrandetaz aparte, esperientzi asko bizitzeko aukera izan duzula ikus daiteke, baina, zure blogean, ezta?

Bai, esperientzia asko izan dira. Elurretan rugbyan jokatzearena adibidez bitxia izan zen. Hemengo rugby taldean sartu nintzen, eta urtero elurretan jokatzeko dutenez, neuk ere probatu nuen esperientzia. Unibertsitateko Musika Bandako kide ere banaiz. Hango kide bat festa batean ezagutu nuen eta saxofoi postu bat libre zutela esan zidan; halaxe hasi nintzen.

**“Ur izoztuetan bainua hartzea oso lasaigarria da”**

### Zein dira bizi izan duzun esperientzia honen alderik onenak? Eta txarrenak?

Onena ezagutu dudana jendea. Txarrena hemengo janaria ona dagoela iruditzen zaidala orain.

### Zer ekarriko zenuke hona Finlandiatik? Eta zer eraman Euskal Herritik Finlandiara?

Euskal Herritik janaria, edaria eta zenbait mendi eramango nituzke. Izokinaz aparte nahiko eskasa da hemengo janaria. Ardoa eta likoreak ere kalitate txarrekoak eta oso

garestiak dira. Mendien falta ere igarri dut. Iparralde osoan bi mendi bakarrik daude 200 metrotik gorakoak eta zazpigarren solairuan dagoen nire pisutik iparraldera begiratuz gero, inolako oztoporik gabe ikus dezaket Artikoa. Finlandiatik Euskal Herrira, berriz, sauna tradizional bat ekarriko nuke, dudarik gabe. Pare bat laku ere bai, saunatik atera eta bainu eder bat hartzeko, gero berriz saunara itzuli aurretik.

### Zer moduz moldatu zara hotzarekin? Horrenbestekoa da?

Nahiko ondo. Arropa geruzak bata bestearen gainetik jarriz gero, ez da horrenbesteko hotzik pasatzen, betiere haizerik egiten ez badu. Dena dela, kalean ez dugu denbora askorik pasatzen normalean. Unibertsitateko campusean, gainera, kalera irten beharrik gabe batetik bestera mugitzeko aukera dago. Dendetara edo hiriarren erdigunera joaten garenean, 10-20 minutuko bidea daukagunez, arropa geruza bat gehiago jantzi eta kitto! Taberna bakoitzak, bestalde, bere jantzitegia dauka, eta oso eroso da hori, nahi beste arropa laga ditzakezulako han kezkarik gabe. Finlandiar neska batzuk, esaterako, izugarriko beroki eta elurretarako prakekin sartzen dira tabernara, baina minigona eta tirantedun kamisetekin agertzen dira dantzalekura. Aurora Boreala ikusteko aukerak zeudela-eta, laku baten ertzerara joan ginen batean pasatu nuen hotzik handiena. Haize handia egiten zuen han; -20 gradukoa zen tenperatura. Haize indartsuak malkoak aterarazten zizkigun eta lagun bat begi bat ireki ezinda geratu zen malkoak izoztu zitzaizkiolako. Etxera joan eta berotan sartu arte ezin izan zuen begi ireki.

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)


**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**MAKETAREN DISEINUA** Jaione Unanue  
**KOLABORATZAILEAK** Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz.  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**



**Laguntzaileak:**



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Korrika

Gogoan dut, batez ere, bosgarren korrikaldia, Mendarotik igande gau batean igaro zena, "Euskara, zeurea" lelopean. Elgoibartarrek 00:00ak aldera entregatu behar ziguten lekukoa Altzola parean, eta lekuko barruan zetorren gutuna amaieran atzerapenez irakurri ez zezaten, or-dubete aurretik han ginen hiru lagun Belortzagiko bihurgunean zain.

Alzolabe baserri inguruan antzematen ziren autoen argiez laster entretenituko ginen: bi foko hori dantzarinak, *dos caballosa*; bi laukidun aspergarriak, *cientoveinticuatro*; luzeak emanda trabeskako argiak, guardia zibila *Dyane seisa*!

Kotxea kez beterik ote? 110eko abiadura mugatik gora?

Korrikaren furgoneta emergentziazko argi gorriak piztuta etorri zen. Testigoa jaso eta berehala, makina bat bider oinez eginiko bidetik, Aingeru Guardan ginen. Bozgorailua pizteke eta, inor ez esnatzeko, kotxeko irratia itzalita *chocolates de Mendaro, escuela nacional* eta *casa-cura-en* azpitik, aurretik furgoneta eta atzetik kotxe eskoba genituela, herria alderik alde zeharkatu genuen, isilean. –Gau hartan zerua izartsua bazen ere, Deba erreka ur ugerrak ez zuen izarrik islatzen uzten-. Arranbideko bihurgunea utzi eta aurreko aldean aurkitu genuen bidea berria zen: askoz xumeagoa, horren bihurgune itxirik gabea –hizkuntza bera ikastera errazten dizun bide bera, alegia-. Astigarribixako bidegurutzera iritsita, Mutrikutik etorritako koadrilari lekukoa pasatu ondoren –eta ez da broma– Kalbarixorako bidea hartu zuen.

Aurten, domeketako erropak jantzita joaten gineneko sentsazio bera berreskuratuta, azalduko gara Elgoibarrera, ikastolako txandal berria estreinakoz luzitzera.

J.L. Zubiaurre ☺

### 33.200 pezeta

Isuna irakurri nuen zergatia jakiteko. "Estacionar en un paso de peatones señalizado". Berriro nire ingurura begiratu nuen aparkatutako autoen egoera ikusteko, justifikazio bila beharbada. Eta halaxe izan zen, arrazoi argi batengatik.

Zergatik jartzen zaizkie isunak auto batzuei eta gaizki aparkatutako beste ibilgailuei ez? Autoa zebrabidean aparkatua banuen, beste alde-

ko ibilgailuek ere isuna behar zuten, lurreko marra hori argi eta luzeak adierazten zuen bezala. Adibide gehiegi ahoan.

Orduan zergatik ez zuten ibilgailu haiek isunik? Ibilgailuaren jabeak legea haustu badu, udaltzainek ez al dute legea edozein egoeratan eta edozein baldintzatan betearazi behar? Edo akaso, legea beraien gustura baldintzatzeko konpetentzia dute udaltzainek? Ez.

Orduan nolatan halako jarrera isunak ezartzeko orduan? Legea bete egin behar da edozein egoeratan, edo bestela ez jarri isunik! Batzuei bai eta beste batzuei ez? Zer da hori! Erdibidekorik ezin da egon. Ez da justua bestela!

Udaltzainek ez dute enpresa pribatu batetik kobratzen, diru publikotik baizik. Beharbada ahaztu egin zaio hori norbaiti? Hamabost zenbakidun udaltzainari adibidez?

Neurriak hartzen hasi direla ere badakigu, isunak garestitzen adibidez. Zein da helburua? Autoen erabilera gutxitzeko plan bat da edo errekaudazioa handitzeko taktika ustel bat? Zerga gutxi ordaintzen ditugu, agian? Ez.

Elgoibartarrok ondo jarrita dauzkagula bada-kigu, kalera edo eskolara kotxez joaten gara eta. Baina gure eskubideak ditugu, eta udaltzainek euren betebeharrak!

Hau salatzeke, sinadura bilketa bat hasi dut web orrialde honetan. Parte hartu, oso erraza da. Guk daukagu azken hitza, eta gauzak aldatzeko boterea.

[www.peticionpublica.es/?pi=P2011N8193](http://www.peticionpublica.es/?pi=P2011N8193)

Jon Larrañaga ☺

### Eskerrik asko

10Bai taldekoek omenaldi hunkigarria egin zioten Sabin Txurrukarri zapatuan, eta familiakoek eskerrak eman nahi dizkiegu. Oso polita izan zen, eta oso gustura egon ginen. Mila esker antolatzailuei, eta baita ere parte hartu zenuten guztiei.

Familiakoak ☺



Noemi Otegi

Zaharrak berri ez, berriak zahar baizik, Ainara!

Harritzekoa da nola ahazten garen sekulako iskanbila sortu duten berrieekin. Libiako egoerarekin aho zabalik geunden, bat-batean Japoniako *tsunamia* gertatu zenean, eta jada ia Libia

ahaztu dugu eta ohitzen ari gara egunero Japoniak duen erradiaktibitate mailari buruzko berriak entzuten; Ordiziako asteazkeneko ferian ilarrak izan duten salneurria entzuten egongo bagina bezelaxe da. Horretan geunden, Zarauttik notizi tamalgarri, latzgarri eta lotsagarria iritsi zitzaigunean. Nola sinetsi gure arteko norbaitek beste bat bortizki erahil duela 300 euro gorabehera! Nahiz eta asko garen oraindik goizero bere bi alaba eta etxeokak oroitzen ditugunak, jada ez da berri, jada ez dago nobedaderik, jada ez du lekurik gure teleberrietan. Berritasunaren etengabeko bilaketan dena zaharkitzen zaigu, baita notiziak ere; ezin gauza berdinez etengabeaz hitz egin. Berri-berri iraungo dute denbora luzez Libia eta Japoniako sufrimenduek eta hil dituzten ume eta emakume askoren familien negarrak, baina ez dira notizi.



Ainara Sedano

Epa, Noe. Nik esango nuke ezetz; jasotzen dugun informazioa bakarren batzuek aukeratutakoa dela, ez dela batera objektiboa eta inola ere ez dela gertatu denaren %100a. Orain bertan Japonian ere kexu izan dira europarrok hangoek baino gehiago eta lehenago jakin dugulako hango berri. Gertakari baten berri izan ordu-

ko apustu egingo nuke aurretik guk ez dakizkigun mila gauza pasatu direla, sekula jakingo ez ditugun milaka gauza. Adibidez, entzuten dugunean norbaitek anaia hil duela lapiko bat ohostu ziolako... Nik esango nuke aurretik ere gertatuko zela guk ez dakigun zerbait, eta azken hori kopetaraino zegoelako egin duela, ezta? Hala ere, ados nago zurekin, gaur egun gertakarietako daukagun erreakzioari buruz diozunarekin. Badirudi ez gaituela ezerk harritzen edo hunkitzen. Edozein barrabaskeri entzunda ere, gauden bezalaxe geratzen garela, eta mila bider gehiago harritzen gaituela ondoan daukagunak egiten duen edozein txorakerik.

**“Berritasunaren etengabeko bilaketan dena zahartzen zaigu, baita notiziak ere”**

Udaro ikusten ditugu mendi lerrokada luzeak erretzen; ez ditugu berriro ernetzen ikusten, oster. Jada ez dira berri, jada ez dago nobedaderik, jada ez daukate eguneroko berrietan lekurik, baina esango nizuke nik badudala horiei buruzko interesik, jakin nahiko nukeela... benetan eskatzen duguna ematen digute komunikabideek?

**“Tristea da benetan zein ohituta gauden besteen zoritxarretara”**

Tristea da benetan zein ohituta gauden besteen zoritxarretara eta zelako axolagabetasunarekin bizi dugun gainera. Eta tristea da baita ere egunen batean guri zerbait gertatuz gero, beste nahi besteko laguntza jaso ez izana aurpegiatzeko muturra izatea. Ez al ditugu ba guk besteen gaitzak gure besaulki bigunetik erosoki behatzen, muskulurik ia mugitu ere egin gabe? Argi dago gero eta norberekoia garelako.



ESKERTZA

**PEDRO JOSE ALBERDI ARRIOLA**

2011ko apirilaren 3an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Lehiakortasuna suspertzeko erreminta makinaren sektorea ezinbestekoa dela esan du Markel Olano ahaldun nagusiak

Asmaola eta Txandakako Ingeniaritza “adibide eredugarriak” direla adierazi du

**E**skualdearen lehiakortasuna aztertzeko bilera egin zuten astelehenean Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak eta Debabarrenako enpresetako, prestakuntza zentroetako eta erakundeetako ordezkariak, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan. Ahaldun Nagusiarekin batera, Arantza Tapia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketarako diputatua eta Xabier Ortueta AFM Makina Erreminta fabrikatzaileen elkarterko zuzendari orokorra eta IMHko presidente denak batu ziren ekitaldian. Batzar horretan Olanok esan zuen erreminta makina sustatzea dela euren lehentasunetako bat, eta hala, hemen bertako enpresen beharrei erantzutera bideratuko dituztela prestakuntza eta ikerketa. Ezagutza eta enpresa uztartzeko adibide eredugarrien artean bi aipatu zituen: Asmaola eta Txandakako Ingeniaritza.

Gipuzkoako lehiakortasuna suspertzeko, Foru Aldundiak abian jarritako Kudeaketa Planaz eta Krisiaren Aurkako Planaz aritu zen Olano IMHn, baina etorkizuneko Gipuzkoa eraikitzeko erreminta makinaren sektorearen ekarpena “hil ala bizikoa” izango dela esan zuen. Izan ere, erreminta makinak gure eskualdean hartu duen indarra ikusita, Debabarrena “eskualde traktore” bihurtu da, ahaldun nagusiaren esanetan.



“Oso ezarria dagoen sektorea da, oso dinamikoa eta Gipuzkoako industriaren ezinbesteko zati batekin lotua dagoena”, esan zuen horren harira. Hori dela eta, etorkizunari begira, Aldundiak lau jarduera esparru lehenetsi ditu: esparru horietako hiru —mugikortasuna, energia eta bioingeniaritza— gorako bidean dira, eta laugarrena da erreminta makinarena, “klasikoa, baina ezinbestekoa”. Etorkizunerako zazpi ekimen aurkeztu zituen horren barruan, eta ekimen horiek guztiak helburu bat dutela zehaztu gero: prestakuntza eta ezagutza, teknologia zentroak eta enpresak elkarrekin bizitzeko guneak sortzea.

## Debegesaren laguntza, ibaira begirako fatxadak berritzeko



Elgoibarren Deba ibaira ematen duten eraikinetako fatxadak berritze aldera, etxebizitza horietakoekin batzen hasi dira Debegesako teknikariak. Herritarrak sentsibilizatu eta fatxadak berritzeko proposamenak aurkeztuko dizkie Debegesak, Deba ibaiaren hiri-irudia hobetzeko. Programa horren barruan, herritarrei aholkularitza zerbitzua eskaintzen die Debegesak eguenero, udaletxeko hirigintza bulegoan, baina interesatuek aurrez txanda hartu behar dute honako telefono zenbakira deituta: 943 744 384 (Nerea Lazkano).

## Mendaroko ikastolako patioa estaltzeko proiektua, lehiaketara

Ikastolako patioa estaltzea erabaki du Mendaroko Udalak, “bai eskolan bertan eta baita herrian ere kirol gune egokiago bat edukitzeko”. Horretarako, ideia lehiaketa bat antolatu du. Interesatuek apirilaren 18ko 13:00ak arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko. Lehiaketaren irabazlea 9.000 euroekin sarituko du Udalak, baina 1.500 eta 1.000 euroko beste bi sari ere izango dira. Obra esleitzen denetik, 45 eguneko epea izango du gero irabazleak, proiektua idazteko. Mendaroko Udalak gehienez 280.000 euroko aurrekontua aurreikusten du lan horretarako. Informazio gehiago: [www.mendaro.net](http://www.mendaro.net).





## Izena **Alfredo Etxeberria**



Elgoibarko EAJ-PNV alderdiak atzo aurkeztu zuen maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeetarako alkatetzarako hautagaia. Alfredo Etxeberria, egungo alkatea, izango da berriz ere EAJ-PNV alderdiaren hautagaia. Aurkezpena egin zen orduan BARREN astekaria inprentara bidalita zegoen, eta ondorioz, ezin izan dugu informazioa zabalago eman.

## Ekitaldia **Otegiaren aldeko manifestazioa**

Arnaldo askatu Politika askatu herri plataformak manifestazio nazionala antolatu du datorren apirilaren 30erako. Arnaldo Otegi aste uzteko eskatuko dute, *Euskal Herriak politika egiteko eskubidea* lemapean. Manifestazioa Plaza Handian hasiko da, 17:30ean. Arnaldoren aldeko plataformak bilera egingo du datorren egunean manifestazioa antolatzeko. Herritar guztiak daude gonbidatuta. 19:00etan hasiko da Kultur Etxean.



## Lehiaketa **Gipuzkoako Ezti Lehiaketa**



Julian Villena eztigile elgoibartarrak (eskumakoa) irabazi du Gipuzkoako Ezti Lehiaketa, ezti argien atalean. Joan zen domekan egin zuten lehiaketa, Zegamako Erlezain Egunean, eta han, ezti argi, ezti ilun eta milalore erako ezirik onenak aukeratu zituzten.

Urtero moduan, Zegamako Erlezain Egunean hurbildu ziren herritarrek aukeratu zituzten ezirik onenak. Aurkeztutako ezti guztiak probatu eta botoa emateko aukera eduki zuten joan ziren herritarrek.

## **Arriagako garbigunea erabiltzeko prest dago**

Arriagako garbigunea erabiltzeko prest dago. Elgoibarko eta Debabarrena eskualdeko bizilagunek erabili ahal izango dute, eta besteak beste, etxeko elektrotresnak, egurra, kartoia, olioia, pilak edota autoen gurpilak bota ahal izango dituzte garbiguneko edukiontzietan. Astelehenetik ostiralera goizez eta arratsaldez egongo da zabalik (9:00-13:00 / 16:00-18:00), eta zapatuetan, goizez bakarrik (9:00-13:00).

## **Trinitate Azokan postua jartzeko epea zabalik**

Ekainaren 18an egingo dute aurtengo Trinitate Azoka, eta salmenta postua jartzeko interesatuek apirilaren 26ra arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiagorako Debemenera deitu daiteke (943 744 067).


## **1971n jaiotakoekin kinto bazkaria**

1971. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo maiatzaren 14an. Interesatuek 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako (Caja Laboral) kontu korrante honetan, apirilaren 20a baino lehen: 3035 0007 25 0071121855.

## **Postre lehiaketa Altzolan**

Zubibai elkarteak postre lehiaketa antolatu du domekarako. Partaide bakoitzak postre bakarra aurkeztu ahal izango du, eta ez du balio eginda erositako postreak aurkeztea. 13:00etarako entregatu behar dira postre guztiak Altzolako frontoian, eta epaimahaiak aukeratu du irabazlea. Postrearen itxura, zailtasuna eta zaporea hartuko dira kontuan. Postre onenaren egileak 50 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 20 eurokoa.

## Atzo hasi zen Korrika Trebiñun, eta eguaztenean iritsiko da Elgoibarrera. Bat egiten duzu Korrikarekin?



**Lorea Iriondo**  
50 urte, erizain laguntzailea

Bai, beti irteten naiz kalera Korrika egitera, eta aurten ere badaukat irteteko asmoa. Ahal badut behintzat, irtengo naiz; seguru. Korrikaren alde egiten diren ekimen guztiak ondo iruditzen zaizkit. Azken batean, era batean edo bestean euskara bultzatu behar dugu.



**Maialen Astigarraga**  
25 urte, hezitzailea

Bai. Lan egiten dudun elkarrekin eta parte hartzen dudun dantza taldeak beti egiten dute korrika, eta nik ere bai. Urte batean, gainera, neuk eraman nuen lekukoa eta oso hunkigarria izan zen. Aurten ere irtengo naiz, eta hilaren 17an, Donostiara joango naiz Morkaikorekin, Oriotik oinez.



**Gaizka Ibirriaga**  
33 urte, Osakidetzako langilea

Bai. Gaztea nitzenean korrika egitera ere irteten nintzen, baina azken urteetan, umea dela-eta, ez naiz irten. Aurten ordu onean iristen da, eta ahal badut irtengo naiz. Giro ona sortzen da Korrikaren bueltan, eta adin guztietako jendea euskararen alde ikustea polita da.



**Aitor Arakistain**  
29 urte, elektronikoa

Bai. Lehen korrika ere egiten nuen, baina azken edizioetan ez dut egin. Aurtengoan saiatuko naiz kalera irteten, ikustera bada ere. Dena dela, ekimen polita iruditzen zait. Giro ona egoten da kalean, eta ondo dago euskarari bultzada emateko.


## ■ SEMAFOROA



**Bernardo Ezenarro kaleko igogailuaren goiko aldean egin duten parkean eskailera arrisku-tsuak daude:** "Igogailua iristen den parkean bi eskailera jarri dituzte, eta jende gehienarentzat eskailera normalak badira ere, aldameneko etxean bizi den emakume batentzat handiegiak eta arriskutsuak dira. Parkea egin aurretik jakinarazi genien udaletxeko ardura-dunei emakume horren arazoa, baina ez digute kasurik egin. Lanak presaka amaitu dituztela iruditzen zaigu".



**Herri Eskolak txalo bat eman nahi dio Jesus Mari Makazagari, joan zen astean eskaintako hitzaldiagatik:** "Txalo bero bat Makari, apirilaren 1ean Herri Eskolan ikasle eta irakasleei eskaini zigun hitzaldiagatik. Aurten Korrikak Euskaltzaindia omenduko du, eta guk ere parte hartu nahi izan dugu omenaldian eta euskararen ospakizun honetan".



Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112

## Erretratu zaharra



1935

Aste honetako erretratu zaharra Maribel Bastidak ekarri du BARRENEko erredakziora. 1935. urtekoa da, eta Madariagan aterata dago, Manuel Sodupe 'Gelaxori' eginiko omenaldian.

**Goian, ezkerretik eskumara:** Migel Arregi 'Iturbide', Jose Leiaristi, Jose Manuel Aranberri, Lorenzo Sodupe 'Gelaxo', ezezaguna, Rafael Azpiazu, Pedro Sodupe 'Gelaxo' eta Patxi Arregi 'Iturbide'. **Erdian:** Xanti Txiki (Madariagako morroia), Manuel Sodupe 'Gelaxo' (omendua), Manuela Aranberri, Artazo baseriko gizona, Juan Etxaniz 'Aldazabal', Toribio Uranga 'Arospide', ezezaguna eta Prasko Aranberri 'Gorriña'. **Makurtuta:** Prudentzio Oñederra, Domingo Uranga 'Arospide', Felix Garate, Juan Arrieta 'Aitza' eta Pedro Garate 'Zuzula'. Erretratuan azaltzen diren guztiak hilda daude.

ESKERTZA

## PEDRO JOSE ALBERDI ARRIOLA

"Josetxo"



*Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean  
menditxo baten azpian  
etxe txikitxo antzin txuri bat*

*lau haitz handiren erdian,  
iturritxo bat aldean  
han bizi naiz ni pakean.  
Ez adiorik.*

Maite zaitugu  
Patxi eta Eburne



# MIKEL HERNANDEZ ABAITUA

IDAZLEA

## “Euskarari esker askoz hobeto ulertzen da Euskal Herria”

**Azken liburuan zeuri buruz idatzi duzu. Zerk eraman zaitu oroitzapen liburu bat idaztera?**

Nire lehenengo liburuaren bigarren edizioa kaleratu zenean epilogo autobiografiko bat sartu nuen, eta jende askori gustatu zitzaion. Iñaxio Mujika Iraola Alberdania argitaletxeko editoreak esan zidan epilogo hori apur bat luzatu eta liburu bat idaztea polita izango litzatekeela. Liburu txiki bat egingo nuela esan nion, 80 bat orrialdetakoa edo, eta azkenean 150 inguru idatzi nituen. Hala ere, ez dut den-dena kontatu, ez dira benetako memoriak izan. Garai hura gogoratzen dut, eta orduko giroaz hitz egiten dut, batez ere.

**80ko hamarkadan kokatu duzu liburua, bereziki, ezta?**

Bai, garai hori da gehien agertzen dena. Liburuko istorioa Elgoibarren hasten da. 68. urte ingurua izango zen, eta Guardia Zibilak Elgoibarren sartu zireneko unearekin hasten da. Jende asko ikusten nuen manifestazioan, eta iskanbila handiko giroa zegoen. Gero, Euskal Filologia ikasten hasi nintzeneko garaia egiten dut salto, 70eko hamarkadara, eta gero 80ko hamarkadan sartzen naiz. Liburua XXI. mendean bukatzen da.

**Liburua Elgoibarren hasten da, baina zuk zein harreman daukazu gaur egun Elgoibarrekin?**

Nire familia guztia Elgoibartik kanpo bizi da, eta ez daukat lotura handirik Elgoibarrekin. Aita jubilatuta zenean gurasoak Gasteizera jo-



*Azukre xehea, gatz larria* izeneko liburua argitaratu du Mikel Hernandez Abaituak (Gasteiz, 1959). Oroitzapen liburu da, eta istorio gazi-gozoek jaso ditu, bitzita bera ere halakoxea delako. Literatura, politika, musika edota kulturari buruzko bizipenak kontatu ditu, batzuk azukretan nahasturik eta besteak gatzez estalirik. Hala ere, mendeku gogorik gabe eta inor mintzeko nahirik gabe idatzitako liburua dela adierazi du.

an ziren bizitzera. Amak minbizia zuen, eta bere senideengandik gertu egon nahi zuenez, aita konbentzitu zuen hara joateko. Hala ere, aita askotan etortzen zen Elgoibarrera, soziedadera, eta goizaldeko 3:00ak aldera arte egoten zen lagunekin. Gaur egun gutxiago etortzen da, baina anaiak eramaten du noizean behin. Gipuzkoan bizi den bakarra neu naiz.

**Euskal Filologia ikasi zenuen garaia oso ona izan zela aipatu izan duzu. Zertan markatu zintuen garai hark?**

Hautzaroa eta lehenengo gaztaroa denontzat dira garrantzitsuak, eta gero, 18 urtetik aurrerako etapak ere izugarri markatzen du. Gainera, politikoki, transizio garaia zen, eta izugarria izan zen. Garai hura nola bizi eta sentitu genuen hitz gutxitan esplikatzeko oso zaila da. Aldaketa handiko etapa izan zen; gauza berri asko ikasten dituzu, lagunak egiten dituzu, maitemindu egiten zara... Jende asko ezagutu nuen, eta hizkuntza osoa ikasi nuen, euskara osorik ikasi nuen. Elgoibarren pixkat ikasi nuen, baina oso gutxi. Donostiara etortzea berriz jaiotzea bezalakoa izan zen: hainbeste jende interesgarri, giro urbanoagoa... Etxetik kanpora nongoen lehenengo aldian izan zen, eta libre sentitzen nintzen. Lagunekin pisuan bizitzeak askatasun osoa ematen zuen.

**Azukre xehea, gatz larria** ipini diozu liburuari izenburua. Zer jaso nahi zenuen izenburu gazi-goze horrekin?

Bitzita gazi-gozea delako aukeratu dut izenburu hori. Azukretan xehea



Susa aldizkariak performance batzuk egin zituen lehen urteetan. Argazkian ikusten den hau izan zen lehenengoa, Deustuko unibertsitatean, Donostiako campusean, Noam Chomsky hizkuntzalariaren festan. Chomsky iraultzailea izan zen linguistikan, eta oso aurrerakoia politika kontuetan. Argazkian ezkerretik eskuinera: Josu Landa bizkarrez, Kike Amonarriz (banda bat buruan), argazkilaria egiten; Mikel Hernandez Abaitua, trajeduna, Chomskyren rolean, eta eskuinaldean Iñaki Uribe poetaz jantzia.

## “Badirudi euskaldunak oso lotsatiak garela eta ez zaigula gustatzen geuri buruz idaztea”

gustatzen zait, eta gatzetan larria (sal gorda). Izenburu bitxia jarri nahi nion. Egia esanda, askoz arruntagoa izan zitekeen, *Oroitzapen gazi-gozaok* edo holakoren bat, baina originalagoa izan nahi nuen. Hortaz, gazia eta gozoa adierazteko gatza eta azukrea aukeratu nituen.

**Zuri buruz idatzi duzu eta zeure bizipenak dira protagonista. Hala-koetan sentitzen da mugarik idazterakoan?**

Nahiz eta oroitzapen gazi-gozaok izan, nik gozotasun pixkatekin kontatu nahi nituen, ez nuelako liburu desatsegin bat egin nahi. Baina azkenean gauza triste asko kontatu behar izaten dira. Nik gogor-keriarako joera daukat liburuak idazterakoan, eta gainera, hau ez da fikzioa, gauza goibel asko gertatu izan zaizkit. Saiatu naiz azukre pixkatekin kontatzen, baina egia da gauza mingots asko agertzen direla liburuan. Fikzioarekin konparatuta, aldaketa handia nabaritu dut idazterakoan, ezin nuelako ezer asmatu. Gauzak gogoratzen nituen bezala kontatzen saiatu izan naiz, baina nobela bat izango balitz, une batzuetan gustura hasiko nintzatekeen fantaseatzen. Askotan gainera, ez dakizu benetan hala izan ote zen edo zeuk gogoratzen duzun horrela. Gauza asko eta asko ez ditut kontatu, bereziki tristeak zirelako. Nire asmoa ez da izan autobiografia bat idaztea, baizik eta orduko giro kulturala zein zen azaltzea edo literaturari buruzko anekdotak kontatzea. Liburuan agertzen diren pertsonengatik da interesgarriagoa nigitik baino. Ni ez naiz oso interesgarria. Kontatu dudan guztia inor mintzeko asmorik gabe egin dut, eta espero dut inor ez zela gaizki sentituko kontatutako gauzekin.

**Literatura, politika eta musikaz jardun duzu liburuan. Garai batean disko bat kaleratzekotan ibili zinen, baina azkenean literaturaren bidea aukeratu zenuen. Zer dela eta?**

Musika talde bat osatu genuen, eta maketaren bat ere egin genuen, baina ikastetxeko lana ere baneukan, eta aukeratu beharra izan nuen. Musikaren mundua niretzat oso zaila zela ikusi nuen, eta denbora asko eskaini behar niola konturatu nintzen. Niretzako literatura errazagoa zen, ni bakarrik moldatu ahal nintzelako. Hasieran uste nuen musika literatura baino gehiago gustatzen zitzaidala, baina gero konturatu nintzen nahiago nuela literatura idaztea, musika egitea baino.

**Azkenaldian oroitzapen liburu asko idazten dira, baina euskaraz ez horrenbeste. Zergatik izan daiteke?**

Badirudi euskaldunak oso lotsatiak garela eta ez zaigula gustatzen geuri buruz idaztea. Ez zaigu ondo iruditzen geure bizitza kontatzea eta ezta ere beste pertsona batzuk aipatzea. Elkarrizketa batzuetan galdetu izan didate ea hitz egin nuen liburuan aipatzen dudan jendearekin. Herri oso txikia garelako izan daiteke, baina ez zaigu gustatzen eta beldurra diogu geure gauzak kontatzeari. Ni neu ere gauza kontagarrienak aukeratzen saiatu naiz. Beste literatura batzuetan askoz gehiago egiten da, eta egur handia ematen da, gainera. Kritiko batek esan zuen mendekua hartzeko aukera izan nuela liburu honekin, baina ez nuela hartu. Adibidez, Elgoibarko nire lagunek, kasualitatez, nire osaba bahitu zuten, eta etxetik kilometro batera eduki zuten lurrazpian, zulo batean. Baina ez dut mendekurik hartu.

## “Politika aro berri baten atarian gaudela sinistu nahi dut”

**Zuk beti argi hitz egin duzu ETA erakunde armatuaz. Horren garbi hitz egiteak arazorik sortu dizu?**

Bai, liburuan ere kontatu dut. Mezu anonimoen kanpaina bat jasan behar izan nuen. Nire lagunei bidaltzen zizkieten anonimoak: nire editoreari, Hasier Etxeberriari telebistako aurkezle zelakoedo, Euskal Idazleen Elkartera ere bidali zuten baten bat, eta nire lagunei ere iritsi zitzaizkien mezu batzuk erotuta nengoela esanez. Batzuk esaten zuten agian mezu bidaltzailea ez zela izango ezker abertzalekoa, eta Polizia izan zitekeela, nire liburu batean polizia-ren torturak eta Estatuaren terrorismoa ere oso modu gogorrean agertzen zirelako. Sekula ez dut jakin nor izan zen, eta salaketarik ere ez nuen jarri. Ez zuela ezertarako balio pentsatu nuen, eta pasatuko zela. Ez zen gozoa izan, eta pasarte horretan azukre gutxi dago.

**Mikel Antza bera ere ezagutu zenuen, gerora ETAko buruzagi izango zena. Zelako tratua izan zenuten?**

Mikelen eta nire emaztearen familia ezagunak ziren hemen Donostian, eta euskal kulturaren giro antifrankista hartan oso hurbi-lekoak ziren. Nik baditut erretratuak, Mikel Albizu [Mikel Antza] eta nire emaztea agertzen direnak 5 urte zituztenean. Mikel familiako bat gehiago izan zen niretzat, eta oso tratu familiarra izan genuen. Inoiz ez zuen politikaz hitz egiten, nik behintzat sekula ez nion entzun. Nire neskaren bidez sartu zen bera Susa aldizkarian, eta hurreman literarioa izan genuen, bereziki.

**Politikan, aro berri baten atarian gaudela entzun dugu azkenaldian. Nola jarraitzen duzu gai hori?**



Saizarbitoria, Abaitua eta Urkizu.

Bai, politika aro berri baten atarian gaudela sinistu nahi dut. Aurrekoetan ere sinistu nahi genuen, eta dena zapuztu zen, baina badirudi oraingo honetan egia dela. Otsa eta artzainaren arteko ipuinean ere, benetan otsa datorrenean inork ez du sinisten, eta hemen benetako bakea egin nahi duten honetan, inortxok ez du sinisten. Hori triste da. Nik uste dut oraingo honetan benetan ari direla, eta pozten naiz. Garai batean, ETA bukatu behar zela esan nuenean, jende batek ez ninduen ondo tratatu, eta orain jende horrek ni bezala pentsatzen du, eta alde horretatik oso pozik eta itxaropentsu nago. Gobernuarengan beste jarrera bat ikusi nahiko nuke.

**Zuk esana da: “Arras ezberdin ikusten da Euskal Herria euskaraz ikasi ondoren. Harrigarria da oso, eta erdaldun batek ezin du imajinatu”. Zertan laguntzen du euskara jakiteak?**

Euskaldun zaharrek ez didate sinisten, baina euskaldun berriek euskara ikasten dutenean gauza bera esaten dute. Zaila da esplikatzeko: zati bat estalita daukan argazki bati begira egotea bezalako da, eta, bat-batean, zati hori agerian geratzen da. Zaila da esplikatzeko. Euskarari esker askoz hobeto ulertzen da Euskal Herria osotasunean. Alderdi Popularreko guztiek euskara ikasiko balute beste sentipen bat izango lukete. Euskal mundua hor da goela badakite, baina euskara jakin gabe ezin dute ulertu zergatik gertatu diren hainbeste gauza.

**Azken urteotan lehen baino gehiago argitaratzen da euskaraz. Nola ikusten duzu euskal literatura?**

Inoiz baino gehiago argitaratzen da, bai, eta kalitate onarekin, gainera. Baina nik uste dut urrezko garai bat egon dela euskal literaturan, eta funtsezko hiru idazle aipatuko ditut kronologikoki: Aresti, Saizarbitoria eta Atxaga. Hiru horiek dira euskal literatura maila altuan jarri zutenak eta ondoren etorri garenok ez gara harantzago joan. Hiru horietatik hona, euskal literaturaren maila ez da igo. Ez dut esaten jaitsi egin denik, baina ez da igo.

**Eskuartearen baduzu beste nobelaren bat. Zerbait aurreraterik?**

Bat baino gehiago dauzkat. Bat nahiko prest daukat, eta beste hiruzpalau dauzkat hasita. Eskuartearen daukadan nobela egiteko denbora asko beharko dut, eta ez dakit noiz kaleratuko dudana. Italian gertatzen da istorioa. Bordiguera izeneko herri batean hasten da, Frantziako mugan. Gizon bat konorterik gabe azaltzen da hondartzan, eta poliki-poliki joango da argitzen nor den eta zer gertatu zaion. Nobela hori idazten ari nintzela beste lan bat gurutatu zait, eta seguruenik hori kaleratuko dut lehenago. Nobela txiki bat izango da, 60 orrialdetakoa-edo. Euskal literaturari buruzkoa izango da, eta *Plagioa* izenburua jarriko diot. Euskal idazle batek plagioa egiten du, eta horren inguruan zer gertatzen den kontatuko dut. Beste lanen artean, nire osabaren bahiketaren inguruko bat daukat, eta besteren bat ere bai, baina aurrez aipatutako bi lan horiek dute lehentasuna.

# Azkaratetik iritsiko da Korrika Elgoibarrera, apirilaren 13an, eguaztenean, 19:00ak aldera

Eguaztenean, 15:15ean hasiko dute Ikastolako eta Herri Eskolako hurrek korrika txikia

**B**adator Korrika!. Eguaztenean iritsiko da Elgoibar herri barrura, 19:30ak aldera. Elgoibartarrek Azkarateko tunelaren irteeran hartuko dute lekukoa, 19:00etan, eta Arriaga auzora jaitsitakoan errepide zaharra hartuko dute, Karkizano gainetik herrira sartzeko. San Pedro, Meliton, Pedro Muguruza, Ermuaranbideko errotonda, Madalako parkea, San Frantzisko kalea, Nafarroa Plaza, Errosario kalea, Plaza Handia, San Bartolome kalea, Errosario kalea, Handia Handia, Santa Ana kalea, Goiko Errotako zubia, eta saihesbide berritik 634 errepidera irtengo dira, handik Sigma auzora sartzeko. Saturixon entregatuko diete lekukoa soraluzetarrei.

*Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari!* da aurtengo leloa. Euskalakari izenondoak euskara maitatzen, ikasten eta erabiltzen duena esan nahi du batetik, eta bestetik, euskara hobetzeko ahaleginak egiten dituena. Hori baita aurtengo Korrikak zabaldu nahi duen mezua: euskara erabili egin behar dela.

Atzo hasi zen Trebiñun, eta hilaren 17an bukatuko da Donostian, jai handi batekin. Tarte horretan, 2.350 kilometroko bidea osatuko du, eta eskuz esku ibiliko dute milaka euskaltzalek lekukoa. Omendu berezi bat ere izango da, aurreko edizioetan legez. Aurten, Euskaltzaindia omenduko du AEK-k, euskara batua sortzeagatik, euskalkien ondarea jasotzeagatik eta AEKren sehaska izateagatik.

## Korrika txikia, apirilaren 13an

Bi urtetik behin izaten den Korrikaren barruan, Ikastolako eta Herri Eskolako 5 eta 12 urte bitarteko umeek Korrika txikia egingo dute. 15:15ean irtengo dira Madalako parketik, eta ondorengo ibilbidea osatuko dute: Madala, San Frantzisko, Errosario, Plaza Handia, Santa Ana, Arrilaga kalea, Plaza Handia, San Bartolome, Errosario eta Plaza Handia. 15:45ean amaituko da Korrika txikia, eta 16:00etatik 17:30ak bitartean Kiribilekin jolasteko aukera izango dute guztiek.



### • KORRIKA KULTURALA ELGOIBARREN

Korrika kulturalaren barruan bi ekitaldi antolatu ditu AEK-k, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

- **"Nick Maritxu, nick Bartolo"** antzezlan (Apirilak 8, 20:30): Antzezlan horretan txat batean elkar ezagutu duten bi gazteren istoria kontatzen du. Galder Perezek idatzi eta zuzendutako obra da, eta Ugaitz Alegriak eta Ylenia Baglietto aktoreek betetzen dituzte Bartolo eta Maritxuren rolak.

- **"Arratoixoa pinpirina"** haurrentzako antzezlan (apirilak 17, 16:30)

### • MORKAIKO eta ELGOIBARKO IZARRAREN IRTEERA

17. Korrikaren amaiera-jaira joateko mendi-irteera antolatu dute Morkaiko Mendizale elkarteak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak elkarlanean. 7:30ean elkartuko dira Plaza Handian, autobusez Oriara joateko [jende gutxi animatzen bada, autoetan joango dira]. Oriotik Donostiara oinez joango dira, lau bat orduko ibilaldian, eta Donostiara iristean, korrika egingo dituzte azken pausoak, korrikaren jaiarekin bat egingo. Bueltarako autobusa zain izango dute, 19:00ak inguruan. Ibilaldiaren prezioa 12 eurokoa izango da, baina Morkaikoko eta Elgoibarko Izarrako bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Asteazkena da izena emateko azken eguna, eta horretarako Morkaikora zein Elgoibarko Izarrara jo dezakezue.

## Elgoibarko lekukoak

1.452. kilometroan hartuko du lekukoa Elgoibarrek, eta 1.462an hartuko dio erreleboa Soraluzek.

- Azkarateko tunela (Lagunak Pilota Eskola)
- Azkarate erdiko zubipea (CD. Elgoibar)
- Larrialdiko bidea (Danobat)
- Arriagako argindar zentrala (LAB-Alkorta)
- Trenaren San Pedroko tunela (IMH, Herri Eskola, B.E. Institutua)
- Matadero aparkalekua (Ikastolako langileak, gurasoak eta ikasleak)
- La Perla taberna (Iratzar)
- Madalako kioskoa (Mausitxa txaranga)
- Sua taberna (Gazte Asanblada)
- Lorito (Haritz dantza taldea)
- Kultur Etxea (Txankakua)
- Jai Alai taberna (Udaleko Euskara Saila)
- Armueta harategia (Felix eta Jabier)
- Murua gozotegia (EA)
- Gorostiza liburutegia (EAJ)
- Euskadiko Kutxa (Ezker abertzalea)
- Gorbea taberna (Aralar)
- Eroski (Elgoibarko Izarra)
- Burdinezko zubia (Sanlo)
- Olasoko errotonda berria (AEK)
- Sigmako autobus geltokia (Haizea taldea)



## ‘Elgoibarko ahozko euskara’ liburua aurkeztu du Jesus Mari Makazaga filologoak

Adinekoei egindako elkarrizketetan oinarritu da Makazaga datuak batzeko

Jesus Mari Makazaga filologoak *Elgoibarko ahozko euskara* liburua aurkeztu zuen astelehenean Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. 2009. urtean Makazagak aurkeztu zuen doktore tesia- ren emaitza nagusia da liburu hau. Makazagak berak aurkezpenean esandakoaren arabera, bere bi etxe izan direnak uztartzen dira lan honekin: EHU eta Euskaltzaindia. Lan hau amaitzea eta argitaratzea haiekiko duen zorra kitatzeko modua dela esan zuen elgoibartarrak.

Elgoibarko eta inguruetako adineko pertsoneri egindako elkarrizketetan oinarritu da Makazaga datuak batzeko, eta Elgoibarko ahozko euskararen deskribape-



na egiteaz gain, inguruko herrietako euskararekin alderatu du. Gramatika, lexikoa, esamoldeak eta abar batu ditu filologoak, eta Elgoibarko berezko 2.500 hitzez osa-

tutako hiztegia ere jaso du liburuan.

Makazagak eskerrak eman zizkien liburu egiten lagundu dietenei, eta baita aurkezpenera joan ziren elgoibartarrei ere.

## Iñaki San Martinen ‘Behin batean soka dantza’ Kataluniako Festimatge erakusketan jarriko dute



Iñaki San Martin *Soarte* argazkilariaren *Behin batean sokadantza* bilduma Kataluniako Festimatge erakustarako aukeratu dute. Calellan egiten da urtero Festimatge, eta zine eta argazki alorrak biltzen ditu. Hain zuzen ere, argazkien atalerako aukeratu dute argazkilari elgoibartarraren lana. Haritz dantza taldeak San Bartolome Egunean egiten duen soka dantza da erakusketaren gaia. Bi urtez egin zituen Soartek argazkiak, eta 2009. urtean estreinatu zuen lana. Kolorez beteriko 35 erretratuk osatzen dute bilduma. Soarteren argazkiak apirilaren 9tik maiatzaren 1era arte egongo dira ikusgai Calellako Festimatge erakusketan.

### ‘Gazte Oporraldiak’ egitasmoan izena emateko epea apirilaren 25era arte

Foru Aldundiak *Gazte Oporraldiak* egitasmoa jarri du martxan, 14tik 17 urtera bitarteko gazteentzako. Parte hartzen duten gazteei dibertsiorako eta bizikidetasunerako gunea eskaintzea da asmoa, gozatzeko eta autonomia pertsonala finkatzeko. Udaleku hauetan parte hartu nahi duten nerabeek apirilaren 25era arte izango dute izena emateko aukera. Banaka, edo, gehienez, hiru laguneko taldeetan egin daitezke izenemateak. Plazak zozketa bidez esleituko dira. Informazio gehiago eskuratzeko Gazte Informazio Gunera deitu daiteke (943 257 986).

### Hitano ikastaroa

Hitano ikastaroa antolatu du Debabarreneko Badihardugu elkarteak, Eibarko Udalarekin elkarlanean. Eskolak maiatzaren izango dira, martitzenetan, 18:30etik 20:30era. Informazio gehiago eskuratzeko Badihardugu elkartera deitu daiteke (943 121 775).



# Omenaldi beroa egin zioten pilotazaleek Sabin Txurrukari, Sallobenteko frontoiaren 100. urtemugan

Omenaldiaren aurretik jokatu ziren pilota partidek ikusmin handia sortu zuten

**H**unkituta agertu zen Sabin Txurruka Txutxo pilotari handia zapatuan Sallobenteko frontoian egin zioten omenaldian. Sallobenteko frontoiaren 100. urtemugaren karietara omendu zuten Txutxo pilotazale eta lagunek. Omenaldiaren aurretik, jakina, pilota partidak jokatu ziren. Bi partida izan ziren. Lehenengoan, Arrillaga eta Armaitxa eta Basueta eta Lizarralde lehiatu ziren, eta bigarrenak irabazi zuten (30-18). Eskuz binakako partidaren ostean, beteranoen txanda iritsi zen. Astigarraga eta Etxeberriak 30 eta 27 irabazi zieten Beraza eta Aldazabali.

Ondoren iritsi zen eguneko momenturik hunkigarriena. Baltzola anaien trikiti doinuek lagunduta sartu zen frontoira Txutxo, eta txalaparta saioaren, ohorezko aurrekuaren eta bertsoen ondoren, hainbat orogarri jaso zituen 10Bai eta Sallobente, Baltasar eta San Migelgo elkarteetako ordezkarien eskutik. Lerro hauen bidez, 10 Bai taldeak eskerrak eman dizkie ekitaldian parte hartu zuten guztiei: Itziar eta Joseba txalapartariei, Armaitxikiko losu bertsolariari, Andoni txistulariari eta Julen dantzariari, Baltzola anaiei, Andoni *Antxola* eta Aitor *Basueta* Sallobente elkarteko kideei, pilotariei eta epaileari.



## Desfibrilatzaile bana jarri dute kiroldegian eta Mintxetan

Kirola egitera doazenek edota ikusleek izan ditzaketen bihotzekoei berehala aurre egiteko, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak bi desfibrilatzaile eskuratu ditu. Olaizaga kiroldegiko harrera gunean jarri dute horietako bat, eta Mintxetako harrera gunean bestea. Bihotzekoa izan berri duen pertsona suspertzeko erabiltzen den tresna txikia da desfibrilatzailea, edonork erabiltzeko modukua. Izan ere, desfibrilatzaileak funtzio autonomoak ditu, eta azterketa txiki bat eginda, gai da bihotzekoa izan duen pertsona horrek deskargak behar dituen edo ez erabakitzeke. Hala ere, Udal Kirol Patronatuak zortzi orduko ikastaro bat antolatuta du apirilera. Ikastaro hori begiraleei eta Elgoibarko klubetako entrenatzaileei eta delegatuei zuzenduta dagoela jakinarazi dute.

## Deskontuak kirol ikastaro bat baino gehiago egiten dutenentzat

Apiriletik aurrera, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak deskontuak egingo dizkie ikastaro bat baino gehiagotan parte hartzen duten lagunei. Hala, hiru saiotan izena emanda duten ikasleei %30eko beherapena egingo zaie saiorik garestienez, eta lau saiotara joaten direnei, %40koa. Gainera, bost saiotan izena emanda duten ikasleek doan izango dute saiorik merkeena. Bestalde, bi saio baino gehiagotara joaten direnek beste lagun bat gonbidatu ahal izango dute ikastaroetako batean parte hartzera. Ikastaroen eskaintza ere zabalduta dute. Hilabete honetatik aurrera, Aquaerobik egin ahal izango da martitzen eta eguenetan (15:00-21:10), eta giharren tonifikazioa barixakuetan (13:15-14:05).

# Euskal Herriko Kronoigoera Txapelketa irabazi du Iñigo Larizek, eta bigarren egin du Mendiko Eskiko Kopan

Arkaitz Irureta, Larizen eski laguna, laugarren sailkatu da Mendiko Eskiko Kopan



Iñigo Lariz erdian, bigarren eta hirugarren sailkatuekin.

**A**ndres de Regil mendiko eskiko saria jokatu zen asteburuan Europako Mendietan, eta elgoibartarrek erakustaldia eman zuten. Zapatuan, bikoteka lehiatu ziren, eta domekan, berriz, Euskal Herriko Kronoigoera Txapelketa jokatu zuten. Kronoigoera horretan Iñigo Lariz elgoibartarra nagusitu zen. Europako Mendietan egindakoari esker, Larizek bigarren postua eskuratu du Euskal Herriko Mendiko Eskiko Kopan, eta laugarren sailkatu da Arkaitz Irureta.

Euskal Herriko proba aitzindaria da Andres Regil saria. Joan den asteburuan 36. edizioa jokatu zen Potesen (Kantabria). Zapatuan, bikotekako lasterketan, Aitor Otxoa eta Balen Tolosa izan ziren azkarrenak, eta Arkaitz Iruretak eta Iñigo Larizek osatutako bikotea seigarren sailkatu zen. Andres de Regil sarian elkarrekin parte hartu duten laugarren aldian izan da hau, eta orain arte lortu duten emaitzarik onena es-

kuratu dute. Lasterketa “arraroa eta oso nahasia” izan zela azaldu du Larizek. “Elurraren egoera ez zen onena eta materialarekin arazo dezente izan genituen arren, seigarren postuan sailkatzea lortu genuen”, zehaztu du. Lariz eta Iruretz gain, Andoitz Agirregomezkortak, Manex San Martinek eta Joseba Elustondok ere parte hartu zuten proban, Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean.

Domekako kronoigoeran, Lariz gailendu zen, 28:20ko denborarekin. “Bizkor irten ginen, eta hasieratik lasterketa buruan jarri ginen Aitor Otxoa oñatiarra eta biok. Erritmo gogorra ezarri zuen Aitorrek, baina azkenengo maldan aurea hartzeko indar nahikoa eduki nuen”, azaldu du Larizek. Balen Tolosa igo zen podiumeko hirugarren koskara. Hala, orain bi urte lortu zuen hirugarren postua hobetu eta txapelarekin itzuli da etxera Iñigo Lariz.



Iñigo Lariz aurrean, eta Arkaitz Irureta atzetik, bikotekako proban.

## Mendi lasterketa antolatu dute Mendaron maiatzaren 1erako



**M**endaroko Txirrindulari Elkartek 25 kilometroko mendi lasterketa antolatu du maiatzaren 1erako. Herriko Enparantzatik abiatuko dira lasterkariak, 10:00etan, eta ondorengo ibilbide hau osatuko dute: Etun, Madariaga, Munitxibarren, Laraskanda baserria, Otarreko gaina, Erentza baserria, Gaintxipixa, Lizarpe gaina, Garalutz, eta Herriko Enparantza. Ibilbidean zehar, 1.350 metroko desnibel positibo gainditu beharko dute lasterkariak. Interesatuak Mendaroko Morroskillo dendan, Elgoibarko Iriondo Kirolak eta Gys Sport Astigarraga dendetan, eta Eibarko Intersport Askasibar kirol denda eman dezakete izena, edota Internetez, [www.herrikrosa.com](http://www.herrikrosa.com) helbidean. Aurrez izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan izena ematen dutenek, berriz, 18.

Lehenengo hiru sailkatuak sarituko dituzte antolatzaileek, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan, eta era berean, hiru sari berezi ere izango dira: helmugaratzen diren lehenengo bi beteranoentzako eta lehenengo mendararrantzako. Sari banaketaren ostean, gainera, kirol produktuak zozketatuko dituzte parte hartzen duten korrikalari guztien artean.

# Jose Gurrutxaga krosa antolatu du domekarako Elgoibar Ikastolak

10:30ean hasiko da lehenengo lasterketa, txikienena

Jose Gurrutxagaren omenezko krosa antolatu du Elgoibar Ikastolak domekarako. 10:30ean hasi, eta 12:00ak bitartean, hamahiru lasterketa jokatu dira. Txikienek, 2003 eta 2004. urteetan jaiotakoek, 350 metroko ibilbidea osatu dute. Hurrengo lau taldeak, 2001 eta 2002. urteetan jaiotako neska-mutilak, 11:00etan irtengo dira, eta 630 metro egingo dituzte. Orduerdi beranduago abiatuko dira lasterka 1999-2000 bitartean jaiotakoak, lau taldetan banatuta, eta 950 metro egingo dituzte. Lasterketa nagusia 12:00etan hasiko da. 13-16 urte bitarteko gazteak eta 1994a baino lehenago jaiotakoak (17 urtez gorako edonor) batera irtengo dira, baina ibilbide ezberdina izango dute. Lehenengo taldekoek 1.470 metro egingo dituzte korrika, eta 1994a baino lehen jaiotakoek, berriz, hiru buelta eman beharko dizkiote zirkuitoari: 4.410 metro. 17 urtez gorako parte hartzaile guztien artean, Real-Bartzelona partida ikusteko bi sarrera zozkatuko dituzte amaieran.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Gernika 0  
Aretxabaleta 1 – Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 5 – Santo Tomas Lizeoa 2 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 1 – Orioko 2 (1. Kadete A)  
Elgoibar 3 – Anaitasuna 0 (Ohorezko infantilak)  
Elgoibar 14 – Touring 4 (Infantil txiki)  
Alevin 6 – Aloña Mendi 6 (Alebinak)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 7 – Laskorain 2 (Nazional B)  
MCM 2 – Cafeteria King Kong 12

### ESKUBALOIA

Quiron Askartza 21 – Tecnifuelle 22 (Sen. neskak)  
Atletico Basauri 27 – G. Eibar Sanlo 29 (Jub. nsk.)  
Lauko 20 – Aiala Z 19 (Kad. neskak)  
Alkorta Forging Group 36 – Corazonistas 31 (Sen. mut.)  
Hotel Txarriduna 30 – J.D. Arrate 29 (Kad. mut.)  
Urola 21 – IMH 19 (Kad. neskak)  
Zarazpe (Pulpo) 45 – Bankoa 16 (Inf. mut.)  
Aiala A. 19 – Casa Astigarraga 18 (Inf. nesk.)  
Federopticos IKUS 33 – Pizzeria Marina 30 (Inf. nsk.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 10  
09:00 Cafeteria King Kong – Azpeitiko

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9  
12:30 Elgoibar – Eibartarrak (1. Kadete B)  
15:45 Elgoibar – Tolosa (Erregional preferenteak)  
Domekia, 10  
12:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Ohorezko infantilak)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Barxakua, 8  
18:15 Basauri – Ermua  
20:00 G. Eibar Sanlo – Zarautz  
Zapatua, 9  
9:30 Casa Astigarraga – Bera Bera  
10:40 Aterpe – Ormaiztegi  
11:50 Bankoa – Ereintza  
16:00 G. Eibar Sanlo – Basauri  
17:45 Zarautz – Ermua  
19:30 Alcorta – Escolapios  
Domekia, 10  
10:30 Basauri – Zarautz  
12:15 Ermua – G. Eibar Sanlo  
13:30 Sari banaketa

### ESKU PILOTA

Barxakua, 8  
21:15 Lagunak – Bergara (1. mailako jubeniak, Udaberriko txapelketa)  
22:00 Lagunak – Aretxabaleta (Kad. Debarrokoa)  
Domekia, 10  
12:00 Lagunak – Beloki (Nag. Udaberri Txapelketa)  
12:30 Lagunak – Bergara (Jubeniak. Debarrokoa)  
13:15 Lagunak – Aretxabaleta (Nag. Debarrokoa)

## Jubenil nesken Euskadiko Eskubaloi Txapelketa jokatu da asteburuan Elgoibarren



Jubenil nesken Euskadiko fase finala jokatu da asteburuan Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. Barixakuan bi partida jokatu dira. Atletico Basauri eta Errotabarri Ermuaren artekoa, 18:15etan hasita, eta Aiala Zarautz eta Grupo Eibar Sanloren artekoa, 20:00etatik aurrera. Zapatuan, Grupo Eibar Sanlo eta Atletico Basauri (16:00), eta Aiala Zarautz eta Errotabarri Ermua (17:45) lehiatu dira, eta domekan, Atletico Basauri-Aiala Zarautz (10:30) eta Errotabarri Ermua-Grupo Eibar Sanlo (12:15). Horrez gain, zapatuan senior mutilek, Alcorta Forging taldeak, Escolapios hartuko du etxean (19:30). Igoera faseko hirugarren jardunaldiko partida izango da. Momentu honetan Alcorta bigarren dago sailkapenean, Zarautzekin berdinduta.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea nagusiak edo zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **616 690 415**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Baserrian ere egingo nuke. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka eta asteburuetan. ☎ **699 609 190**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatria ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Gizona eskaintzen da banaketa lanak egiteko. B gida-baimena daukat. ☎ **650 538 274**
- Emakumea sukaldari laguntzaile edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **610 545 505**
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan. Erreferentziak ditut. ☎ **636 581 194**
- Tornugilea lanerako prest. 25 urteko esperientzia daukat. ☎ **609 040 872**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **650 152 866**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **608 820 954**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **606 226 827**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **662 267 569**
- Neska euskalduna emakumeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **626 490 986**

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **646 506 777**
- Emakumea lanerako prest. Zerbitzari, frutategian, gasolindegian... edozein lanerako prest. ☎ **638 955 012 / 943 201 254**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Orduka. ☎ **652 446 228**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **617 077 922**
- Neska gaztea. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke. ☎ **646 977 562**
- Emakumea lanerako prest. Orduka egingo nuke lan. ☎ **628 658 982**
- Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbitzeko. ☎ **687 114 707**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **690 177 259**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari laguntzaile... ☎ **608 474 923**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, kamarera edo sukaldari laguntzaile... ☎ **609 148 861**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ **635 355 168**
- Emakumea gauzez edo asteburuetan nagusiak zaintzeko prest. ☎ **618 163 061**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎ **666 008 974**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎ **698 398 818**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Pisia salgai Urasandin. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia, egongela handia eta ganbara. Oso argitsua. ☎ **628 525 471**
- Neska gazteak logela hartuko luke alokairuan. ☎ **610 545 505**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldia, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 628 183**
- Apartamentu polita salgai Mendaron. Berria, logela bat, komuna, sukaldia eta egongela. 2001ean eraikia. 126.500 euro. ☎ **652 718 426**
- Pisia salgai Mendaron, Azpilgoetan. 75m<sup>2</sup>, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua, dena kanpoaldera begira. 165.000 euro. Negoziagarria. ☎ **655 746 480**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **618 734 000**

**GARAJEAK**

- Garaje itxia salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m<sup>2</sup> + 13m<sup>2</sup>. ☎ **620 856 768**

**BESTELAKOAK**

- Diruzorroa aurkitu dit kiroldegi inguruan. ☎ **608 201 390**
- Perikitoak ihes egin digu Pedro Muguruza inguruan. Kolore horia dauka. ☎ **943 741 787**
- Auto kargatzailea salgai, kapotarekin. 350 kilokoa. Merkea. ☎ **639 933 281**

PREST



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

**Enpresagintza Fakultatea**

**IRUN** **APIRILAK 9** larunbata, 11:00

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORIATZA** **APIRILAK 14** osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN

Etorri aurretik izena eman!





• Zorionak, **Narrea**, hila-  
ren 14an, 3 urte be-  
teko dituzulako. Ama,  
amama eta aitaren  
partez.




• Etxeko mutil handiak  
3 urte betetzen ditu as-  
teartean. Zorionak  
**Ekintxol** Patxo handi  
bat aitatxo, amatxo eta  
Nuhaanen partez.



• Zorionak, **Narrea!** As-  
telehenean, 4 urte!  
Zenbat gauza egin be-  
har dituzun hemendik  
aurrera... Ondo pasa  
eta muxuaaaaaak!



• Zorionak **Xabier**  
**Arriolari**, atzo 7 urte  
egin zituelako, eta pa-  
txo handi bat Oierren  
partez.



• Zorionak, **Alaine**,  
atzo urtetxo bat egin  
zenuelako. Muxu handi  
bat, sorgintxo!



• Zorionak, **Floke**, as-  
teartean 8 urte egin ze-  
nituelako. Familiakoen  
eta bereziki, Jonen  
partez.



• Zorionak, **Eneko**, as-  
telehenean 11 urte  
egin zenituelako. Etxe-  
koen partez.



• Zorionak, **Nora**, atzo  
3 urte egin zenituelako.  
Patxo bat familiakoen,  
eta bereziki, Naia, Jo-  
ne eta Oinatzen partez.



• Zorionak, **Sare**, apiri-  
laren 5ean urtea egin  
zenuelako. Patxo bat  
famiakoen eta lehen-  
gusuen partez.



• Zorionak, **Almar**, hi-  
laren 5ean 4 urte egin  
zenituelako. Familiako-  
en eta bereziki, gura-  
soen partez.



• Zorionak, **Idoia**, bihar  
5 urte egingo dituzula-  
ko. Etxekoen, eta be-  
reziki, Yuriren partez.



• Zorionak, **printzesa**,  
atzo 7 urte egin zeni-  
tuelako. Familiakoen,  
eta bereziki, gurasoen  
partez.



• Zorionak, **Markel**,  
igandean 3 urte egingo  
dituzulako. Etxekoen  
eta bereziki, Enekoren  
partez.



• Zorionak, **amamal**  
Aner, familiakoen eta  
lagunen partez.



• Zorionak amama **Begoña eta Ainhoa**, hilaren  
7an zuen eguna izango delako.

## OSPAKIZUNAK



Pasa ditugun hau bezalako momentu on guztiengatik. Aupa Xariak!

**Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki  
bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru  
lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia  
**eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar  
duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino  
lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
e-postara bidali.



"Foru Aldundiak  
antolatutako hezitzaileen  
mintegia dela eta,  
apirilaren 14an,  
osteguna, ludoteka itxita  
egongo da.  
Barkatu eragozpenak"

"Oraindik garaiz zaude  
Aste Santuko ekintzetan  
parte hartzeko!  
Ekarri izenemate  
orria gaztelekura,  
domeka baino lehen."



### OKINDEGIA

10 domeka **IBARRENEA**

### FARMAZIAK (24 orduz)

8 Etxeberria (*Santa Ana*)  
9 Fernandez  
(Mendaro - Tel: 943 756 142)  
Goizez: Garitaonandia-Bidasolo  
10 Fernandez  
(Mendaro - Tel: 943 756 142)  
11 Yudego

12 Zabaleta  
(Soraluze - Tel: 943 751 384)  
13 Fernandez  
(Mendaro - Tel: 943 756 142)  
14 Ibañez  
(Soraluze - Tel: 943 751 638)  
15 Garitaonandia-Bidasolo

## 8 barixakua

### *Jaialdia*

**19:00** Ikastolako jaialdia  
Lehen Hezkuntzako umeen  
jaialdia. Ikastolako frontoian.

### *Antzerkia*

**20:30** 'Nick Maritxu, nick  
Bartolo'  
Herriko Antzokian.

## 10 domeka

### *Kirola*

**10:30** Jose Gurrutxaga haur  
krosa  
Ikastolak antolatuta, Plaza  
Handian.

### *Behiaketa*

**13:00** Postre lehiaketa  
Zubibai elkarteak antolatuta,  
Altzolako frontoian.

## 13 eguaztena

### *Korrika 17*

**15:15** Korrika Txikia  
Madalako parkean hasiko da.

**19:00** **Mauxitxa txaranga**  
Korrikari ongi-etorria egiteko,  
kalejira egingo dute Mauxitxa  
txarangakoek.

**19:30** **Korrika**  
Azkoititik iritsiko da Korrika, eta  
Elgoibar zeharkatuko dute  
korrikalariek.

## 14 eguena

### *Bilera*

**19:00** Manifestazio nazionala  
antolatzeko bilera  
Arnaldo Otegiaren aldeko  
plataformak apirilaren 30eko  
manifestazio nazionala  
antolatzeko bilera deialdia egin  
du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

III. URTEURRENA

## JENNIFER RIVERO FLORES



*Urteak joan diren arren,  
egunak igaro diren arren,  
Eguzkiak ez du berotzen  
eta izarrek ez dute disdirarik egiten.  
Zu falta zaitugu,  
zure alaitasuna falta dugu.  
Nik ere maite zaitut, nire umea.*



2008ko apirilaren 10ean hil zen

Familiakoak

ESKERTZA

## ANDRES JUARISTI SAN MARTIN



*Ez agurrik, ez adiorik  
gero arte bakarrik.*



2011ko apirilaren 5ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Lehoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
[www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosarlo, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87





**Elgoibar Arreiture BHI**

Arreitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: [013431aa@hezuntza.net](mailto:013431aa@hezuntza.net)

[www.elgoibarbarhi.net](http://www.elgoibarbarhi.net)

# ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2011-2012 IKASTURTEA



## **BATXILERREKO ESKAINTZA**

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA**

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

**HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

Gizarte zientziak

Humanitateak

**Aurrematrikulako datak:**

**Maiatzaren 2tik 11ra**

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 13an, 18:30ean**  
**IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Apirilaren 13an, 17:00etan**  
**MEKAKO ARETOAN**

